ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko azaroaren 20a, ostirala • 134 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

SEGURTASUNA SAILA

Ibilgailuen tratamendurako zentro baimendu batera eramatea eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailu Erregistroan baja eskatzea

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateratua onetsi zeneko urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 106.1 artikuluaren arabera, ibilgailu bat tratamendu-zentro baimendu batera eramatea agindu dezake Udalak, baldin eta:

a) Bi hilabetetik gora egin badu Udalaren ibilgailu-biltegian, bide publikotik kendu zenetik, eta titularrak alegaziorik aurkeztu ez badu.

b) Bi hilabetetik gora egin badu bide publikoan ibilgetuta, eta titularrak alegaziorik aurkeztu ez badu.

c) Hilabetetik gora egin badu bide publikoan, eta bere bitarteko propioak baliatuz lekuz aldatzea ezinezko egiten duen hondamena erakusten badu, edo matrikula-plakak falta baditu.

Segurtasuneko zinegotziak, eskumenak eskuordetzeko alkatearen 2024ko azaroaren 29ko dekretuak aitortzen dion aginpidea baliaturik, aipatzen diren ibilgailuak —aurreko egoera horietakoren batean daudenez gero— tratamendu-zentro baimendu batera eramatea ebatzi du 2026ko azaroaren 12an, eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailu Erregistroan haien baja eskatzea.

Hala jakinarazten zaie interesdunei, dagozkion ondorioetarako.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko azaroaren 12an

Segurtasuneko zuzendari nagusia
JOSÉ ANTONIO HARO ROMERO

MOTA	MARKA/MODELOA	MATRIKULA
ZISTERNA-KAMIOIA	IVECO MP240E26/PS GNC	3593 FLG
KAMIOIA	PIAGGIO PORTER EFI 1.3 BASCULA	1970 FMX
KAMIOIA	IVECO 65C11 GNC BASCULANTE	7157 FJB
ZISTERNA-KAMIOIA	IVECO MP240E26ÑPS	1555 FLH
ZISTERNA-KAMIOIA	IVECO ML150E21K	8766 FMS
ZISTERNA-KAMIOIA	IVECO MP240E26ÑPS GNC	3587 FLG

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.11.20 06:25:56 Z